

Nazioarteko ekonomi desberdintasunen gaineko ikuspegiak

1.- Desberdintasunaren trataera eta ikuspegi ezberdinak.

Desberdintasuna orokorrean, eta errenta eta aberastasunaren desberdintasuna modu berezian, aztertzeke hainbat arrazoi daude. Baina desberdintasunaren kontzeptua oso konplexua da eta amaiera gabeko eztabaida sorrarazi dezake: zein da bere edukia eta esanahia; zeintzuk dira jasangaitzak diren desberdintasunak; zeintzuk dira gizarteak berdintasunaren bidean jarri beharko lituzkeen helburuak, etab. Orduan, Senen planteamenduari (1995:7) jarraituz, zein desberdintasunaz ari garen zehaztea komeni da.

Analisi ekonomikoan ohikoena berdintasun ekonomikoak aztertzea izan da. Baliabide ekonomikoen banaketa hartu izan da ongizatea lortzeko pertsonen dituzten aukerak islatzeko adierazle egoki gisa. Baina honek ez du arazoa erabat konpontzen. Izan ere, bi pertsonen errenta berdina izan arren bere bizitzak oso desberdinak izan daitezke gainontzeko aldagaietan egoera ezberdin batetan izanez gero, bai gaixotasunen alorrean, zein ezaugarri pertsonaletan, edota gaitasun eta inguru politiko eta sozialean. Muga hauek kontutan izanda ere, eta jakinik gaitasun eta askatasun mailan ematen diren egoera guztiak islatzen ez direla, berdintasun ekonomikoetaz arituko gara, bai herrialdeka bai nazioarte mailan.

Badira zenbait arrazoi desberdintasunak aztertzeraz bultzatzen gaituztenak. Lehenik badira arrazoi etikoak, moralak eta filosofikoak berdintasun larriak arbuizatzeko edo gutxienez berdintasun maila jakin bat desiratzeko. Mugak non dauden zehazteko orduan gizartearen artean eta denbora zehar aldeak izan badira ere, bada uste bat desberdintasunak mugak izan behar dituela.

Bigarren, arrazoi etiko-moralik ezean ere desberdintasunak arreta eskatzen du bilakaera ekonomikoan eta garapenean eragina duelako. Eta eragin hori aztertu behar da. Izan ere, berdintasun ekonomiko handiegiak hazkunde ekonomikoa bera zalantzan jar dezake. Harremana eta eragina dagoela argi dago, loturaren norabidea zein den argi ez badago ere¹.

Bestalde, baliabide ekonomikoen banaketa aztertzerakoan oso kontutan hartu behar da fluxuen (sarrera, gastua edo aberastasuna) banaketa zer nolakoa den, baina baita ere fluxu horien jatorria. Zein motatako jardura ekonomikoen ondorioz lortuak izan diren errenta horiek. Izan ere, baliabideen banaketaren emaitza epaitzeko orduan, egokia edo arbuiaigarria den alegia, emaitza hori nola lortu den garrantzitsua da. Hau da, errentaren banaketa funtzionalak argibideak ematen ditu desberdintasunaren eta garapen edo hazkunde ereduaren inguruan. Ondorioz, berdintasun ekonomikoak zelan sortu diren jakiteko ezinbestekoa da produkzio faktore horien jabegoaren banaketa eta faktore bakoitzaren ordaina nolakoa izan den jakitea. Gisa honetako analisiak egitea nazioarte mailan oso zaila da eta mota honetakoak oso urriak dira.

¹ Kuznetsek plazaratutako teorian hasieran hazkundeak ezinbestean desberdintasuna behar zuen eta denborarekin banaketa parekatuko zela zioen; Egindako hainbat ikerketa enpirikoetan ordea, desberdintasunak arindu ezezik areagotu ditu hazkundeak. Baina, Hego-Ekialdeko Asiako herrialdeen esperientziak hankaz gora jarri du aurreko uste osoa. Hauetan hazkunde garrantzitsua eta errentaren banaketa parekoa aldiberean eman dira.

Azkenik, garapen ekonomiaren analisiaren baitan oso toki garrantzitsua betetzen du herrialde edo erregioen arteko desberdintasunak aztertzea. Analisi horrek mundu mailan eskuera dauden baliabide ekonomikoen kopurua ikustea ahalbidetzen du. Gizateriak bere osotasunean dituen erronkei aurre egiteko adinakoa denentz ikustea ahalbidetzen baitu. Herrialdeen garapen eta azpigarapen maila baliabideen eskasian baino baliabideen jabego, kontrol eta banaketa desberdinean oinarritzen dela agertaraziz.

Are gehiago, pobrezia eta desberdintasunen gaur egungo egoerak herrialde baten errealitate, gabezi eta faktoreez gain globalizazio prozesuaren ondorio ere badira, nazioarteko eta izaera globala hartuz. Ezin dira ulertu herrialdeen gertakizun bakan eta propio bezala, baizik eta ekonomiaren globalizazioak ekarri duen herrialdeen arteko elkarmenpeketasunaren baitan. Pobrezia eta desberdintasuna mugak gainditzen dituzten gertakizunak dira. Bere eraginak herrialdean eta gainontzeko inguruan somatzen dira bai arazo ekonomiko gisa, bai ezegonkortasun politikoa sustatuz². Izan ere, gero eta gehiago pobrezia eta desberdintasunak nazioarteko ekonomi indarren ondorio eta esparru horretako segurtasunaren ardatzetakoak jotzen dira. Hau izango da gure analisiaren ikuspegia. Nazioarte mailako desberdintasunaren azterketa zehatza.

Orain bai, gure analisia osatzeko nazioarte mailako desberdintasunak aztertzeaz gain alor honetako nazioarteko instituzioek desberdintasunari buruz izan duten ikuspegia eta jarraitutako estrategiak ere aztertuko ditugu 5. atalean.

Bestalde, desberdintasun ekonomikoak ikuspegi anitzetatik aztertu dira. Arlo teorikoan egin diren ekarpen guzti horiek bi multzo nagusitan sailkatu daitezke: batetik, desberdintasunaren gainera ikuspegi indibidualistak jorratu dituztenak eta bestetik, izaera kolektiboko ikuspegiak landutakoak (ikus 1. taula). Bi ikuspegi kontrajarri hauen baitan plazaratutako teoriak gidatu dute arazo honen ezagutza eta berari aurre egiteko estrategiak bai herrialdeen baitan bai nazioartean.

1. taula: **Desberdintasun ekonomikoen zergatien gainera teoriak**

METODOLOGI IKUSPEGI INDIBIDUALISTAK	METODOLOGI IKUSPEGI KOLEKTIBISTAK
1. Teoria neoklasikoa	1. Keynesiar teoria
2. Giza kapitalaren teoria	2. Teoria instituzionalak
3. Ezberdintasun genetikoetan oinarritutako teoriak	3. Latinoamerikako estrukturalismoaren teoriak
4. Herentziaren teoria	4. Negoziazio boterearen teoria
5. Bizitzako zikloaren teoria	5. Teoria marxista
6. Norbanako aukeraketaren prozesuan oinarritutako teoriak	6. Aukeraketa prozesu kolektiboetan oinarritutako teoriak
7. Teoria estokastikoa	

Iturria: Ochando (2003).

² Camdessus, NMF-aren lehendakari ohiari egindako elkarrizketa batean pobrezia jotzen zuen egungo sistema ekonomikoaren mehatxu nagusitzat.

Lehenengo multzokoek, orokorrean, desberdintasunak aurrez zehaztutakoak direla eta beraiengan Estatuak gutxi egin dezakeela mantentzen dute. Desberdintasuna gizartearen berezko ezaugarria dela gizarteak berez norbanako askoren batuketak diren heinean. Ezberdintasunak eskura dituzten baliabide ekonomikoetatik hasi eta arlo guztietako norbere ezaugarri pertsonaletaraino ematen direla, eta ondorioz, berdintasun ekonomikoak ez direla herrialde kapitalisten berezko arazo, norbanakoen izaeraren berezko arazo baino. Are gehiago, bakoitzak lanerako eta arriskuak hartzeko duen grinaren inguruan dauden ezberdintasunak sortzen dutela berdintasun ekonomiko horiek, norberaren hautaketa askearen ondorio, alegia. Azkenik, adinari ere garrantzi handia ematen zaio. Bizitzaren araoaren arabera norbanakoaren ahalmena eta gaitasuna errenta eta gainontzeko baliabide ekonomikoak eskuratzeko ezberdina denez, horrek desberdintasunak eragiten ditu norbanakoen artean, gizarteko diparekotasunetan islatuz.

Bigarren multzokoek aldiz, desberdintasunen zergatia norbanakoan baino gizartearen antolaketa instituzionalean kokatzen dute. Esaterako sistema kapitalistan oinarritutako gizarteetan jabego eskubidea dela giltza eta bere banaketa desberdintasunen arrazoi nagusia agertzen dute. Izan ere, baliabideen gaineko jabego eskubideak modu desberdinean daude banatuta, batzuk baliabide eta ondare ugariren jabe diren bitartean beste batzuk ezer ere ez dutelarik. Honek gizartearen baitan jabetza mailaren arabera pertsona taldeak sortzea dakar, ekonomi jardueraren emaitzaz jabetzeko aukera eta presio eragiteko gaitasun desberdinekoak direnak. Horrela, talde bakoitzak duen boterea funtsezkoa da batzuk eta besteek lortzen duten azken emaitzetan. Ondorioz, ikuspegi honetatik zilegi eta beharrezkoa ikusten da botere publikoen eskuhartzea egoera hori zuzentzeko.